

Nafarkaria

• ostirala • 1998ko urtarrilaren 30a


Egunkaria

Gehigarri honetan



Altsasu • Domingo Lumbier plaza berriaren egitasmoa aurrera.
Jose Andres Burgete • Irunberriko Arangoitik ikastola hizpide.

“40 ordu”



40 ordu pelikula estreinatu berri da Leitzan, bertako berrogeita hamar lagunen partaidetzarekin egina. Apustu baten gora-beherak kontatzen ditu, euskaraz. Herriko Vidicom ekoiztetxeak egin du filma, eta beste toki batzuetan erakusteko proposamenak jaso dituzte dagoeneko.




Altsasu •

Domingo Lunbierreko plaza berriaren egitasmoa aurrera

Bertan babes ofizialeko 75 etxebizitza egingen dituzte azkenean

Altsasuko Udalak finkatu ditu dagoeneko Domingo Lunbierreko birmoldaketarako oinarriak. Udalaren egitasmo berritzaile hau gauzatutakoan huraxe izango da herriaren gunea, zalantzarik gabe.



Domingo Lunbierreko eskolan hainbat etxebizitza egingen dituzte. ● AMAIA AMILIBIA

BESTEAK BESTE 300 IKUSLERENDAKO antzokia, plaza izugarri handia, komertzioendako eremu zabala, parkina eta babestutako 75 etxebizitza ofizial eraikiko dituzte bertan. Udalak, beraz, bi diru iturri nagusi izanen ditu egitasmo hori gauzatzeko: batetik, etxebizitzaren eta esparru komertzialen salmenta, eta, bestetik, Europako Batasunaren 25 milioiko dirulaguntza. Gainontzekoa udalak jarriko du.

Domingo Lunbierreko proiektua honako talde honek egingen du: Juan Jose Diaz Yarra arkitektoak, Blas Otazu abokatuak eta Javier Flores udal hirigintza teknikariak. Talde hori urritik urtarilerara bitartean behin-behineko

egitasmoa prestatzen aritu da, eta oraintsu udaleko alderdietako ordezkariak ados jarri behar izan dute xehetasunetan. Zeregin horretan desadostasunak izan dira zenbat etxebizitza egingen diren erabakitze orduan. Egitasmoan hiru aukera ageri ziren: 60, 75 edo 90 etxebizitza egin. Udalarentzat lehendabizikoa zen

garestiena, eta azkenean erdibidekoa aukeratu zuten alderdietako ordezkariak. Beraz, plazan 75 etxebizitza eraikiko dituzte, eta horiek gehienez lau pisu izanen dituzte. Altsasuko alkate Jose Angel Agirrebengoarentzat etxebizitzak egitea ezinbestekoa da proiektua bideragarria izan zedin.

Teknikari taldeak hilabete dauka behin betiko proiektua lantzeko. Lan hori bukatutakoan, Altsasuko udalbatzarren onespina jaso beharko du berriro aurrera egin ahal izateko.

Zerbitzu hobek

Herriaren erdian dauden 7.000 metro koadroak hartuko dituen gunek inguruko zerbitzuak hobetuko ditu. Udaltxoa, esate baterako, nabarmen handituko dute: Domingo Lunbierreko egitasmoan agertzen denez,

560 metro koadro handiagoa izanen da lanak bukatutakoan. Hedatzea udaletxearen atzealdetan egingen da, eta, oraindik zehazteke badago ere, horren bidez kultura eta turismo zerbitzuak eskaini nahi ditu Udalak. Antzoki edo auditorioan, berriz, 300 ikuslerendako adina toki izanen da. Agirrebengoak dioenez, era eta kolore guztietako ekitaldietarako erabiliko dute: «Antzokiak eszenatoki handia izanen du antzerki lanetarako, baita kontzertuetarako ere, eta zinema emanaldiatarako pantaila izanen du».

ko ere, eta zinema emanaldiatarako pantaila izanen du».

Etxebizitzaren behealdean, berriz, lau metro zabaleko aterpeak izanen dira. Horietan denda, jate-txe, kafetegi eta bestelakoak jartzeari espero du alkateak, hartara herriko zentro komertziala izan dadin.


Egitasmoaren lurren %55 udalarenak dira, eta gainontzekoa herritar batzuenak. Lur eremu guztia lur sail bakarra bihurtuko da, eta legeak agintzen duen bezala lur eremu guztiaren %20an besterik ezinen da eraiki. Beraz, lur jabeek duten kopuruaren %20 eraikitze eskubideekin saldu ahal izanen dute, eta gainontzekoa eraikitze eskubiderik gabe. Egitasmo hori gauzatzeko udalak 25 milioiko dirulaguntza jasoko du Europako Batasunetik. Antzokiak 80 milioiko aurrekontua du, eta udalaren hedatzeak 20 milioikoa.

Gaur egun Domingo Lunbierreko eraikuntzan udal haurtzaindegia, Iñigo Aritza ikastolako haur hezkuntza eta herriko zenbait elkarteren lokalak daude. Horiek guztiak Navarro Villoslada ikastetxearen eraikuntzara pasatuko dira. Iñigo Aritzako haur hezkuntza Navarro Villosladako lehenengo solairura eramaten dute, eta beheko solairuan udal haurtzaindegia, Musika Eskola eta gainerako elkarteak izanen dira.

→ Amaia Amilibia

bi hormetara

JOSETXO AZKONA



Eta orain, filminen ondoren istorio bat idatziko du zuetariko bakoitzak, arrisku egoera bat nabarmenduz, horrela, segidan, denon artean diskutitu ahal ditzagun, banan-banan.

Ickok Casparrek ondorengo kontakizuna izkiriatu zuen:

'Gailurretik begira, Sewasten herria ikus zezakeen arras gibelean, eta, kostata, baina azkenean, zapaldua zuen Penus kaskoaren azal zuria. Elurretik ozta agertzen zen harri bakarrean eseriz, horizonteari so egin zion lilurak konkorturik: «Zuritasuna ez da existitzen, gauza zuriak baizik: irina, almidoia, neguko eperraren lumak eta maingidaren zurimina...». Arropa eta kranpoiak erantzi eta pozarren jaurtiki zituen iparrerantz.

Behin elurrez moldatu lumatxan etzan orduko, albora luzatu zituen hatz puntak. Eta baita haragizko lantzurda ukitu ere, xuabe-xuabea. Mendizaleari

izerdia zerion borboka, eta izerdia isuri ahala zurituz eta jelatuz zihozzen tantak, harik eta tantok elur-izotz bihurtu arte. Gailurkide ezezagunaren gorputz atalek dizdiz egiten zuten nabari, hark botatako haziak bezala: orain bero, gero epel eta jarrarian kristal hotz.

Baina, zer egiten ote zuen emazteki hark kasko haren gainean? Zein bidetatik iritsia zen hara; Penus, ia goratu ezinezkoa izaki?

Bat-batean, tontorrean metatu elur-hegala bertan behera erori zen, bi gorputzak herrestan eramanez, elkarrekin lotuak, zuzen amildegirantz.

Orduantxe, beso bat izotz masa mugikorretik atereaz, pioleta iltzatu zuen koiaren erraietan. Haiak ziren krask hotsak burdinaren hortzek jela urratzean! Wolija eta Castroren karrankak, burrunba ikaragarria!

Sewastengo plazaraino allegatu zen erorketan,

handik goitik oldartua, oraindik pioletari hestuki helditzen ziolarik. Ertz batera itzuli zituen begiak, eta baita irudi femenino bat ikusi ere, oroigarri gisa bertan zut.

Eskulturak honako hitzok zekartzan oinean:

«Tutulia misterioitsuaren omenez, Penus mendiarren dama zaintzailea, ibarrekoak eta gailurretan barrena ausart dabilena laguntzeagatik, esker onez, Sewasten herriak eraikia...».

«Beno, Ickok, zure istorioa ez dago gaizki», esan zuen Goi Mailako Mendi Federazioko irakasleak. Hala ere, zure idazkian ez da zehazten zergatik ez zenuen zeure burua gailurreko klabijari sokaz lotu, ezta kranpoiak zergatik kendu zenituen ere goian izatean. Segurtasun neurri guztiak hautsi egin dituzenez, ez duzu gidari karneta jasotzen izango deialdi honetan. Ea, Matias, jorra dezagun orain zure kontakizuna!

Tutulua

Bera

Ahozko historia
lehiaketarako
deialdia

BIDASOA IKERKETA ZENTROAK eta Behinpin Malerrekako kultur elkarteak, elkarlanean, ahozko historia programa bat egiteko lehiaketa ireki dute. Lehiaketan landu behar den gaia emakume nekazaria eta lana da, betiere Baztan Bidasoara mugatua. Lanak historian zehar emakumeak izandako lana bilduko du. Kontuan hartu behar da, baina, ahozko historiako lan bat dela, eta, beraz, egun bizirik dagoen jendea izanen dela informazio iturria. Lehiaketa Baztan Bidasoako edozeinentzat dago zabalik, eta taldeka zein banaka har daiteke parte.

Ekainaren 30a bitarteko denbora izanen da lana egiteko eta aurkezteko, baina aurretik izena eman behar da, norbera agertuta edo ordezkari baten bidez otsailaren 15ean, igandea, Malerrekako IKA euskaltegian eginen den bileran. Bertan banatuko dira, halaber, lehiaketaren oinarriko arauak. Lanarekin bat grabatutako elkarrizketak kasetetan aurkeztu behar da, eta transkribaketa paperean eta disketean.

Lanak euskaraz egin behar dira. Bidasoako Ikerketa Zentroa arduratuko da edukiari epaitzeaz, eta IKA euskaltegia euskara maila aztertzeaz. Hiru sari banatuko dira: 75.000 pezetakoa lehena, 40.000 pezetakoa bigarrena, eta 20.000 pezetako hirugarrena. Lanak antolatzaileen esku geratuko dira, eta bildutako materiala ez da itzuliko. Bidasoako Ikerketa Zentroak eskualdeko historia biltzeko ahaleginean antolatuta du sariketa, hori baitu helburu nagusi.

→ Jon Abril

Lizarra



Brontze Aroko asentamendu bat aurkitu dute

Lizarrako saihebidetako lanak direla eta, Navark enpresa jarraipen arkeologikoa egiten ari da, eta Brontze Aroko asentamendu bat aurkitu du Ordoiz izeneko parajeen, Lizarrako erdigunetik hiru kilometrora. Bertan, bertzeak bertze, etxola baten hondoa eta sukarrak eta zeramikazko hainbat puska aurkitu dituzte. Kokalekua Brontze Arokoa da, K. a. 3.900. urtekoa, hain zuzen ere. Asentamendu horren berri 1982. urtetik dute arkeologoek. Orduan lehen zeramikazko aztarnak aurkitu ziren. Ikerlariok ilbeltz osoan aritu dira indusketa lanetan, eta behin lur erauzketa amaituta, estali eginen da.

Larraun

Maitena Ezkutarik
jarraituko du Plazaola
Partzuergoan kudeatzaile

PLAZOLA PARTZUERGO TURISTIKOA, LARRAUNALDEA eta inguruetako turismo ekimenak areagotzeko eta turismoa erakartzeko asmoz sortu zen. Sorreratik, Maitena Ezkutari ari zen kudeatzaile lanetan. Maitena etxarriarra izan da partzuergoaren ageriko aurpegia. Eta aurrerantzean ere bere horretan jarraituko du. Izan ere, aste honetan eman dira ezagutzera gerente postu hori betzeko asmoz egindako oposizioen

→ Urko Aristi

emaitzak. Guztira 64 lagun aurkeztu ziren lanpostu hori eskuratu nahian. Azken proba, ordea, bost baino ez ziren iritsi. Azken horiei egindako probetan, Maitena Ezkutari izan zen garaile, eta, beraz, lanpostua berea izango da aurrerantzean ere.

Partzuergo turistiko baten buru izateak lan ugari eginarazten du. Egun hauetan, Maitena Madrilen ospatzen ari den Fitur azokan da. Bertan Nafarroak badu ordezkari, eta horien artean Plazaola dago, beste partzuergoekin batera.

Madrildik bueltatutakoan izendatuko da ofizialki kudeatzaile berria, eta, horrenbestez, aurrerantzerako dituzten egitasmoak gauzatzen saiatu behar du. Izan ere, lana amaigabea da. Egin duten azkena, herriz herri jarri duten seinalizazioa.

herri aldizkariak

Edurne Elizondo

Upelak hustutzen

Ttipi-ttapa hamabostekariko azken zenbakiak sagardotegiari tarte berezia eskaini die. Asier Gogorza kazetariak idatzi artikulua bidez. Sagardo garaia bete-betean dugu eta aldizkariak ez du bazter utzi nahi izan upelen gaia. «Gaur egun Gipuzkoa da sagardoaren lurraldea, Astigarraga, Hernani eta Urnietako inguru hori bereziki, baina Nafarroan ere badira zenbait sagardotegi, gero eta gehiago, nahiz eta garai hobeagoak eza-gutu diren. Julio Caro Barojak erran zenez, aspaldi-aspaldian sagardoa omen zen pittarrarekin batera - Nafarroako mendialdeko edari nagusi, ardoa besta egunetan

bakarrak hartzen zen bitartean. Beran bertan badakigu hamar sagardotegi zeudela 1920. urtean, eta herritik mugitu gabe eskuratzen zuten, gainera, beharrezko sagar guztia. Lehen mundu gerraren aitzinetik, bertalde, egurrezko kupelak egin eta Frantziara saltzen zituzten bi lantegi omen zeuden Lesakan».

«Denborarekin ohiturak aldatu egin dira, halere, eta sagarrondoak eskastearekin batera, sagarrak garai bateko protagonismoa galdu zuten inguru hauetan. Horren ondorioz bertako sagardozaileek Gipuzkoako kupletera jo zuten, eta azken finean horren

urrun ere ez dagoenez, sagardo denboraldian gaur egun ugari dira hemendik harat abiatzen diren lagun koadrilak. Baina ez dira sagardozaile guztiak Gipuzkoara begira gelditu». Nafarroan ere, artikulua azpimarratzen duenez, badira sagardotegiak: «Aurten bi sagardotegi dira gure eskualdean txotx egiteko aukera ematen dutenak. San Anton bezperan eman zioten hasmenta Lekarozko Larraldean denboraldi berriari. Eta Koxkonta jatetxe-sagardotegiak, aldiz, joan den astean ideki zituen ateak zenbait berrikuntza egin ondoren, eta Aste Santua pasa arte izanen da txotxerako aukera».

Donesaturdiko



Juan Kruz Lakasta

Javier

Javierrek 43 urte ditu, eta bizitza bide korapilatsua izan da harentzat. Aita Tuterakoa du, ama Logroñokoa, Gasteizen jaio zen, eta jaio eta berehala familia osoarekin batera Brasilerara joan zen. Hasieran, gurasoek azukre-kanaberak biltzen lan egin zuten. Gero, kanabera-bilketak eragin nekeak eta izerdiak jasan ezinik, negozioa zabaldu zuten: Amazonia urrunean odolkiak eta txistorrak egin zituzten Nafarroako erara. Negozioak, jakina, porrot egin zuten, eta aldegin zutenean baino txiroago itzuli ziren Euskal Herrira, Javierrek hiru urte zituela.

Javierren aita Potasasen mehatzari lanetan hasi zen, eta familia Iruñera joan zen bizitzera. Horrenbestez, Javierren haurtzaroa gogorra izan zen, eta pubertaroa, latza. Hamalau urterekin eskola utzi zuen, eta zerbizari lanetan hasi zen: Tilo, Yerri, Txistulari... Tabernaz taberna, barraz barra lan egiteaz gain, ospearen eta

sosen bila kantari lanetan aritu zen hainbat taldetan: Welcome, Xaneiro, Anacós... TVEko *La gran ocasión* saioan ere saiatu zen, alferrik. Ez zuen zorterik, ez kantagintzan ez eta loterian ere: soldadutza egiten ari zelarik, loteriako *gordoa* tokatu zitzaizen konpainiako kide guztiei, hari izan ezik.

Javierrek ez zuen etsi, eutsi egin zion, eta -Nafarroak bezala- beti aurrerantz segitu zuen. Ezkondu zen, bi seme-alaba eduki zituen, eta, azkenean, negozioetan arrakasta lortu zuen. Bazituen zoriontsu izateko arrazoiak. Haatik, erraietan hutsunea sentitzen zuen. Xabierraldian parte hartuz eta Erromara bidaia eginez bete zuen hutsunea. Erroman Aita Santuarekin izan harremanak autobide zuzen bilakatu zuen ordurarte bide korapilatsu izandako bizitza. Argia ikusi zuen, eta -esaten duenez, horren gidaritzapean- bere burua Osasunako lehenakari izateko hautagai aurkeztu zuen.

Lumatu ditudan Done Saturdiko oilar guztien artean, zalan-tzarik gabe honako hau da itxura surrealistena duena. Halaber, honako hau da ehunetik ehunean errealitatean oinarriturik dagoen bakarra, asma-kizun bakar bat ere ez duen bakarra. Errealitateak gailenduta, agur. ●

Apustuaren budetan

Leitzako talde batek jokua eta tranpa ardatz dituen 40 ordu filma estreu berri du herrian



Apustu baten inguruko gora-beherak ardatz dituen pelikula estreinatu berri da Leitzan. Bertako talde batek egin du, eta berrogeita hamar leitzarrek hartu dute parte. Apustuak, tranpak eta kontrabandoak familian sortzen duten egonezina islatu du euskaraz egindako lan honek.

APUSTUAREN ETA HARRIAREN HARITIK GERTATUTA-koak ez dira oraingo kontuak. Horiek gogoratu nahi izan dira 40 ordu filmean. Ordu eta hogeita bi minutu irauten duen pelikula honetan apustua da ardatza. Benito (Ernesto Arraras) apustuzale amorratua da. Tabernako elkarrizketa batean berotu eta herriko tranpazale eta jokozale gaiztoenei (Fernandeztarrak) erronka botatzen die: baietz 40 ordutan mugaz muga 75 kiloko harria ibiltz Leitzatik Goizuetarako joan-etorria egin. Apustua galduz gero, Benito baserria eman beharko du ordainean. Jokoa garbia dela ziurtatzeko, epalea izanen dute begirale ibilbide aldapatsuan. Tartean, kontrabando aferak eta apustuek familietan sortzen duten egonezina ere azaleratuko da.

Nolanahi ere, protagonistaren saila ez ezik, filma bera erlojuaren kontra egindako lana izan da. Ideia eta gidoia aurretik landuak bazen ere, 40 ordu egiteko ahaleginetan leitzar mordoxka hasi zen lanean duela hilabete eskas. Ideia Mikel Elosegik biologo eta zinemazalearena izan den arren, gidoia eta zuzendaritza lana berak eta Unai Zabaletak egin dute. «Beste



Mikel Saralegi harrijasotzaileak ere parte hartu du 40 ordu filmean.

Bestelako proiektuak

Pantailaratu berri den pelikula honek besterik ekarriko du seguruenik. Nolanahi ere, Vidicom ekoiztetxeak badi-tuzte beste asmo batzuk ere. Film labur-rrak eta luzeak egiten jarraitzeaz gain, besteak beste, Karrape irratit-telebista proiektua gauzatu nahi dute. Vidicom ekoiztetxea duela lau urte sortu zen, eskualdeko informazioa suspertzeko asmoarekin, eta joera horri jarraituz sortu nahi dute telebista. Tokian tokiko tele-

bistak gero eta gehiago. Baztanen duela hilak abiatu zen Xalao telebista, ipa aldizkariak berea ere jarri Bortz-irietan eta Malerreka. Joxe-an Perurenak, Vidikideetako batek, aurretiko ha proiektua egiten. «Karrapeortzeko asmoa dugu. Proiektua daukagu, Udalarekin hasi gaude eta berehala aurkez-

Perurenarena ez ezik, bazkide duen Daniel Mugikarena eta filmean gidolari eta aktore lanetan aritu den Unai Zabaletarena ere bada. Leitzan jadanik bada Karrape udal irratia, eta telebistarena beste pauso bat litzateke. Proiektua bideragarria izan daitekeela uste dute. Jadanik azpiegitura franko badu ekoiztetxeak, eta ez dute ordurako eraberritu nahi. Dena den, oraindik zehazteko gauza antz dagoela adierazi du Perurenak.

urrats bat da, beste film batzuk eginak daude. Azkenekoa, Rodrigo luzeantxa, azaroaren hasieran eman zen Leitzako zineman. Ondoren, afari bat egin zen eta berotu ginen. Gidoia egin eta pelikula prestatzen hasi ginen abenduan», gogoratu du Elosegik.

Leitza apustuzale eta harri jasotzaile herria izaki, haien inguruan jazotzen da dena. «Hemen material aberatsa dugu. Leitzan oso garrantzitsua den harria eta duela gutxi arte egiten ziren apustuak gogoratu ditugu, aldi berean Ezkurra, Urtoko muga eta Goizuetan barna egiten zen kontrabandoaren pasarteak tartekatuz», dio Zabaletak. Filmaren harria apustu baten gora-behera bada ere, egileek apustuak etxetara ekartzeko duen ondoreza eta hondamena islatu dute. «Beste edozein filmetan Benito heroiak litzateke, berak apustua irabazi duelako. Baina nik ez dut hori adierazi nahi. Bera ez da sekulako gizona; ikaragarriko apustua egin du, baina jokozale



Joan den astean aurkeztu zuten jendaurrean 40 ordu filmean, Leitzako zineman. ANDER GILLENDA

eta alproja bat besterik ez da. Hemen balio duena Pakita emaztea da (Bihotz Astibia), baserriagatik hainbeste gai egiteko dena».

Azkar eta 150.000 pezetarekin egina

Uzkur ibili dira lana egiteko. Pelikulan parte hartu duten berrogeita hamar leitzarrek euren egin-beharrak dituztela ezin ahaztu eta Eguberrietako oporrak erabili zituzten filmaketa egiteko. Ordua eta hogeita bi minutu irauten duen obra filmatzeko bost egun igaro zituzten. «Leitzako Vidicom bideo ekoiztetxearen azpiegiturarekin eta laguntzarekin grabatu genuen Eguberrietan, Inauterietarako estrenatu nahi genuelako. Dena den, gure estiloa da. Zitzu batean egin, muntatu eta bukatzea gustatzen zaigu», gaineratu du Elosegik. Laster egin duten arren, ez da lan erraza izan. Elosegik eta Zabaletak ez ezik, Joxean Perurena eta Daniel Mugika Vidicom ekoiztetxeak kideak ere hainbat ordu sartu behar izan dituzte. Perurenak dionenez, filmaketa gogorra izan da. «Lan handia eman digu. Jendea erabiltzea harat eta honat, behar zen momentuan behar zen tokian egotea izan da zailena. Film luze baterako gutxienez hogei eguneko lana behar da, eta guk bost bakarririk hartu ditugu». Gainera, gidoia dela eta, pasarte asko kanpoan eta toki zailetan egitea egokitu zaizkie. «Hogei bat tokitan ibiliak gara. Bata bestetik urritu daude eta toki zailtan kokatuak. Hasi Plazaolako geltokitik, Leitzalarrera igo, Goizuetara joan... Erotu ginen baina ongi ateratu da. Denetarik egin behar izan dugu: aktore, ekoizle eta kamerari lana», azpimarratu du pozik Perurenak. Filmaketa amaitutakoan, lau egunetan muntatu zuten eta joan den ostiralean estreinatu zen Leitzako zineman.

40 ordu auzolanean egindako pelikula dela esan daiteke. Filma aurrera ateratzeaz bi zuzendariek eta ekoiztetxeak kideak arduratu badira ere, berrogeita hamar leitzarrek izan dute paper bat lanean. Batzuk noizbait arituak, besteak sekulan ez. Erretiratu sail bat ere ausartu da kameran aurrean jartzen. Denek borondatea eta lana jarri dute eta emaitza 150.000 pezetarekin egindako filma izan da (6.000 libera inguru). Dirua, azpiegitura bezalaxe, Vidicom ekoiztetxeak jarri du. «Dirua da gutxiengoa. Lana franko ongi gelditu izana da garrantzitsua», dio Perurenak. Gainera, estreinaldian izan zuen harrerak eta arrakastak lan eta izerdi guztiak ordaindu dituela uste dute arduradunek. Inauterietan, joan den ostiralean pantailaratu zuten lehenbizikoz 40 ordu, eta

Mikel Elosegik

«Gure estiloa da. Zitzu batean egin, muntatu eta bukatzea gustatzen zaigu»



Unai Zabaleta

«Leitzan duela gutxi arte egiten ziren apustuak gogoratu ditugu, Ezkurra, Urtoko muga eta Goizuetan barna egiten zen kontrabandoaren pasarteak tartekatuz»

Leitzako zinema txiki gertatu zitzaien, kalean hainbat jende gelditu baitzen. Aurrekontua estreinaldian bertan sarrerekin jasotako diruarekin berdindu badute ere, Leitzako Udalarik, Garalur nekazari eskualdean garapenerako elkarteri eta Plazaolako Partzuergoari dirulaguntza eskatu diete. Nolanahi ere, oraindik ez dute erantzunik jaso.

Behin ezagutzera eman eta gero, pelikula gehiegi «erre» gabe beste herri batzuetara ere eman daitekeela diote egileek. Perurenaren ustez, pelikula Leitzako hizkeran eta jendearrekin egina badago ere, beste edonon erakutsi daiteke. «Euskal Herrian apustuak egiten diren edozein herrian gertatutako gora-beherak kontatzen ditu pelikulak eta edonon koka daitezke», azaldu du. Badirudi pelikulak oihartzuna izan duela. Jadanik ondoko herrietatik eskan hasi zaizkie:

Doneztebetik, Goizuetatik eta Lekunberritik deitu dituzte lana eskatzeko eta Gipuzkoatik ere jaso dute deiren bat. Dena den, egunak oraindik ez dira zehatzu. Oraingoz behintzat, segurua den gauza bakarra da 40 ordu Leitzan mailatzen egiten den Aste Kulturalean eskainiko dela berriz ere.

Aurretik hainbat lan eginak

40 ordu lehenengo film luzea duten arren, aurretik laburrak eta antzerki lanak egindakoak dira. Sagu eta Sator eta Satituss Band trikilitari taldearen abenturarekin hasi zena beste lan batzuetan ere gauzatu da. Egun musika nahiko bazterturik dute eta zinemagintzan dabilta buru-belarri. Vidicom ekoiztetxeak eta Elosegik jadanik zazpi film labur eginak dituzte eta badute eskarmentua: Aitonaren gogoetak; Egun beltza; Ametsaren bideak; Legeak urratzen, insumisioaren gaia aztertuz; Nik izan nahi dut, monarkiarren inguruko parodia; Hiltzailea; Rodrigo luzeantxa. On Kixoteren liburuan oinarritutako parodia. Laburrak orain dela gutxi arte Leitzan egiten zen bideo lehiaketara aurkeztu izan dituzte eta sariren bat ere jaso zuten. Leketitoko eta Errenteriako bideo jaialdietan ere egon izan dira. Zabaleta eta Elosegiren arteko elkarlana ez da hain aspaldikoa, azken lau pelikuletara mugatzen da.

Labetik atera berri duten pelikulak asko «mekatu eta erre» dituen arren, hurrengo baterako badarabilte ideien bat buruan. «Lan izugarriak hartu ditugu eta nekatu gara, baina hemendik hilabete batzuetara goseak egonen gara eta berriro zer bait pentsatzen hasiko gara», bukatu du Elosegik.

→ Irene Arrizurieta

Zuzenketa

● Joan den asteko erreportaietan Mikel Aoi, Garraidako eskola publikoko zuzendaria, solaskide izan genuen. Oker, baina, haren izena Mikel Otegi dela argitaratu genuen. Barkatu, beraz, endredoa.

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Klaudio Otaegi aitzakirik...

Eginbehar nagusiak zituen irakaskuntza eta izkiriagintza, aberasbide hautak ez izanagatik, ez zituen horratio erdeinatu



DEUS GUTXI LITEKE PATRI Urkizuk eta Xabier Azurmendik Klaudio Otaegiren lanei zizkieten sarrerei gehi diezaiekeguna, geure juzku eskas eta mugatua ezpada -Klaudio Otaegi olerkaria (1836-1890), Etor, Donostia, 1991-. Galde geniezaioke geure buruari, bestalde, zertara dator ares-tian argitara emaniko liburu batetan eskeini berriak hona ekartzea, eia zilegia denentz, edota, besterik gabe, plagioaren bidean ez ote garen abiatu. Zalantzak zalantza, susmoak susmo, euskal literaturaren ekarri handiazko segurtamen osoa badaukagu, eta gutxi barru zoko zoro eta, seguroenean ere, oso irakurriegia ez den hau bere hirugarren urtera betetzera doan honetan, inoiz baino klarkiago ikusten dugu geure literatura idatziaren babesa, ezagutarapena eta zabalkuntza bermatu eta sustatu behar dugula, ona goratuz, baina baita txarra izan denaren berri ere lotsatu gabe emanez, azken batez, biak baititugu txanpon beraren bi aldeak, geurea den txanponaren osagarriak hots. Bestalde, euskaraz eginiko literatur lan ugari eskasegiak izanagatik ere, huraxek beraiek ere ikasbide digutenari ezin diogu saihestu: gure hizkuntza erabili izanaren erabakiaren ausartatik hasita -ospea litekenez bezanbatean bederen-, gizaki gehienon sos-gutiziari histia eginez uxatzeraino iritsirik. Eta bestenaz, Aldizkari Ofizilak itzultzeaz nazka-nazka eginda dagokeen zirikatzaile hari, egin dezala bere azkoren itu gisa garenok dagigun moduan, eia orduan, nahiz subjektiboki eta erdaraz, itsuki salatzen duen euskal letretako diruz eraikitako bolizko dorrearenari berdin deritzonentz.

Ez zaieke bereziki laketgarria gertatuko, ia seguru, euskal literaturan balio hutsalik baizik ikusten ez dutenei Klaudio Otaegiren lana.



Honezkerok, Jon Juaristik, gure nafar zirikatzailearen maiusturu-maisua datekeenak -jakina zurginek ezin dutela santuekin ihoareak egin, bai erre orde- halako destainez hara nola marraztu zigun zegamarra handioski-honek ere erderaz naski-: «Traductor eusquérico de los literatos fueristas». Eta esker-rrak, Hondarribiako irakaslea ez zegoela, agi denez, 1840.ean zendu zen Felipe Agustín Otaegi Beizamako erretorearekin ahaideturik, argitara gabe dirauen euskarazko sermoitegi baten egilea zenarekin alegia, bada bestenaz, bihotzekoa emateko beste zitekeelakoz: foruzalea eta kristau fundamentalista!

Baina sarrera luzanga honen ondorean, bagoazi gurera. Klaudio Otaegi Gainzerain Zegamarra 1836.eko urriaren 30an jaiotzen. Mutikoa zela oraino, sorterriko organojole aritu zen oposaketan gailendu ostean. Magisteritza 1858.ean Gasteizen bukaturik, ber urteko urriaren 20an gaituriko oposaketari esker, Hondarribiako maisu sartu zen 1859.eko otsailaren 7an, eta lanpostu horretan segitu zuen bizitza osoan hartan zendu arte, 1890.eko urtarrilaren 18an. Hondarribiara joateko urtea arras emankorra zitzaion

zegamarrari bestalde. Atharratzeko sendi noble bateko alabarekin ezkondu baitzen, Luzia Richard Grandmontagnerekin alegia, eta horren kariaz, Bonaparte printzearekin askazitu, azken hau, lehenbiziko emazteaz nardaturik edo, bigarren ezkondu zenean, Luziaren Klemenzia ahizparekin egin zuelakoz. Xuberotar ahizpa hauek, Araian, Zegaman eta Hondarribian egonak baziren, eta hortik uler liteke irakasle gazteak Iparraldeko neska ezagutu izana.

Eginbehar nagusiak zituen irakaskuntza eta izkiriagintza, aberasbide hautak ez izanagatik, ez zituen horratio erdeinatu. Irakaskuntzarenak, bestalde, bereziki kezkatzen zuen, gutun batetan adierazi bezala: «Eskola maisu bezela dedan egimbidean, ezin liteke egin gauza aundirik euskararen onean, zeren mundu guziak daki obligatuak gaudela erdaraz erakustea eskola aurrai-». Bigarrenari bagazokiola aldiz, esan sormen lana olerkigintza arloan burutu zuela guztiz gehien, eta gaztaroan egin zezakeena ezezaguna zaigun arren, hil aurretiko hamarkadan tajutu ehun hurbiletiko olerki baditugu egun irakurgai, pasa den mende bukaerako lore-jokoe-tan nahiz batere arrotzak ez zitzaizkion aldizkarietan plazaratu zituenak, Donostiako Euskal Erria-n edota Iruñeko Euskara-n esate baterako. Edozein modutan ere, lanik sendoena itzulpengintzan burututakoa dugu, bere kasa esleitu testuenak direla Bonaparte eskatutakoenak direla. Erret koinatuak eskaturik Gipuzkoako zenbait herritako euskalkietara egin zituen bihurtak, eta Printzeak egin bidaietan laguntzaile aritu zitzaion, berbarako, 1866.ean Nafarroan barrena eginikoan, Itzagaondoko bailarako euskararen geografia historikoaren azterketa egiteko aprobetxatu zuena.

etorri ahalean

Patziku Perurena



Mirande apezten

SINESTEA BETI ERRAZAGO da pentsatzea baino. Gezurra. Sinetsi gabe ezin liteke pentsa. Gaur ez da deustan pentsatzen, deustan sinesten ez delakotz. Niri benpe, ez zait interesatzen sineste aztarnarik gabeko pentsalaririk, idazlerik, lagunik. Neretzako sinesle erromantikoa edo senezkoa dateke zinez sentitzen eta pentsatzen duen bakarra. Besteak oro, eskolastiko, erretoriko edo sofistak huts.

Mirande sinesle haundi izan zen; behar bada euskal kulturak eman duen sineslerik fine-netakoa. Bere bizitza eta bere literatura dira horren lekukorik ederrenak, inoiz J. Sarrionandiak ongi sinalatu izan duen bezala.

Ez dago sinetsi gabe sentitzerik, pentsatzerik; ezin dut irudika sineste gabeko giza sentimendu zinezkorik. Gizakiak, zori onez edo gaitzez, ezin sentitu edo gozatu dezake deus, sinetsiz ez bada, gogoan estutzen eta etsitzen dioten konbentzio sakratuak beregisa urratuz ez bada. Ezin dut irudika erro errotiko sineste senezko hori gabeko pentsalaririk, ez izpiritu azkarririk.

Bistan da gizamin absurdo honek sinismenean dituela bere erroak. Horregatik dira funtsen gauza bera *creer* eta *crear*. Gizakiak bere susmoaz, bere senaz gozatu (sinistu) nahi ditu. Horixe duzu, neretzako poeta, sinesle, pentsalari zinezkoena. Baina ez dira gauza bera, poeta eta kritikoa. Ez eta Mirande eta Joxe Azurmendi ere. Zinez sinestean, suzko argia sumatzen baitu gogoak. Mirandek berak esana: edonor ezin liteke izan pagano.

Munduko sineste partikular guzien iturrian, horixe sumatzen dut: senezko gizaindar askatzaile basatia. Eta indar horren eskasiak, horren ahuldiak sortu ditu, hain zuzen, munduko monoteismo egitura-tu guziak: hinduismoa, judaismoa, kristaukeria. Hori ikuste-

ra, ez da urruti joan beharrik. Aski da euskaldun eliztar, HBtar, edo antzeko jende honek nola sinesten duen erreparatzea. Zinezko sineste indarririk gabeko zozo gregario batzuk bezala gutiz gehienak.

Horregatik utzi nau antzu, Azurmendiren betiko jarrera honek. Azkeneko liburu komertzial huts honetan ere, ez baitu deus berririk esaten. Demokrazia santuaz eta enparaez esaten dituenak, maiz buruan eta paperean paseak izaki, espero nuen sinesle HBtar gazterik ahuldu horien gogoak bizkortzeko zerbait eskeiniko zigula, baina, tutik ere ez. Horiiek denak ongi doaz nonbait, Miranderen gogotik edo... Bistan da, Miranderen itzalean, antimirandismoa ereiten trebe egin zaigula Azurmendi.

Demokratek eta biolentoez, azken finean, alderdi biek ideal demokratikoak dituzte: ideal judukristauak. Planteamolde hauetatik kanpoan geratzen da Mirande; hori da Miranderen berezitasuna euskal pentsamenduan. Horregatik, aspaldian haren itzalpean ari den apez batengatik, kritika horixe espero nuen, euskal iraultza heroiko apezburudun hau pitin bat ernatzearen besterik ez bazen ere.

Ez orde. Euskal Herriko Unibertsitate demokratikoa E. Jünger batekin egin duena, egin nahi liguke Azurmendik behin eta berriz Miranderekin: euskal gatazka negarti judukristau zozoaren erdi erdian *honoris causa* izendatu, edo ahal balitz, HBko ideologo bihurtu. Lekutan dabilzki gazte jator gizajotuo!

Arrazoi zuen Adolfo: «Arrakasta baizen bilatzen ez duenarendako, berdin dio burges izan edo kriminal». Eta zer gara gu? Azken euskaradun gixatxartuok? Arrakasta eta ohore bila gabiltzan azken jitoeria akonplejatu judukristau baizik? Nik ez dut benpe beste sineste noble eta izpiritu azkar horrenik inon sumatzen.

Ziria

• Motxorrosolo •

Bruneten ondorengoak

KANTA BATEK FAMATU ZUEN BRUNETEKO GERRA FRONTEA. AZKEN SEI urteotan, odolik isuri ez duen bataila bat izan dugu, orduko gerran demokraziaren alde zirenen aldeko zen Brunet baten inguruan. 400 milioi auzian, giza-eskubideen alde utzitako ondarea. Honetan ere, adiera kontuak eztabaida iturri, Nafarroako Unibertsitatea zein den argitu ezinean ibili dira. Sei urte igaro ondoren, antza denez, elizakoek amore eman dute. Beteri, sortu berri den fundazioaren kudeatzaileak zein diren ikusirik. Ez dakit bada. Adjuntoak itsas-ontzia utzi izanak ezer adierazten al digu?

Jose Andres Burgete

☉ Irunberriko alkatea

«Udalak herriko hezkuntza egoera normalizatzea nahi du»

Irunberriko Udalak Euskararen Legearen aldaketa eskatzeko erabakia hartu du berriki, herria eremu mistoan sartu eta eskola publikoan D eredu jarri ahal izateko. Jose Andres Burgete herriko alkatearen ustez, lehentasuna hezkuntza normalizazioak du, ikastolaren proiektuak baino gehiago.


HIZTUN ETA PRESTU AGERTU ZEN Irunberriko alkatea. Gripeak jota ohean egun batzuetan atsedean hartu eta gero, berritsu aritu zen CDNk Iruñean duen egoitzan.

■ **Nafarroako Parlamentuari Euskararen Legearen aldaketa eskatzea onartu zuen Irunberriko Udalak joan den azaroaren 25ean. Nola dago egun gaia?**

Udalak aurreko urtean hartutako planteamendua berritzea izan da hartutako erabakia. Irunberri euskarak aurrera egiteko sentsibilizazio handia dago. 1986ko Euskararen Legeak egin zuen zonifikazioak eragin duen egoera ezohikoa da. Legeak egingako banaketa, Irunberri kasu, egun ez dela egokia erakutsi du. Irunberri euskararen aldeko bilakaera ona izan da eta gertatzen ari dena ez dator bat legeak eskualderako esaten duenarekin. Nagusiki ez-euskalduna den aldean ikastetxe publikoak adina ikasle dituen ikastola alegala dugu. Arrazoi horiek eraginda, leku arazoa nabaria denez, Irunberriko Udalak gestioak hasi zituen 1996an Parlamentuan. Ikastolako ordezkariak eta udalekoak Parlamentuko kideekin bildu ziren, eta egoeraren berri eman zieten. Garai hartan ez zen inolako akordiorik hartu, eta orain berriz hasi dugu prozesu bera, Irunberri eremu mistoan sartzeko. Ikastolaren egoera ohikoa izan dadin nahi dugu, eta, ondorioz, euskararen normalizazioa gerta dadin.

■ **Arangoitik Ikastolako gurasoek diote legea aldatzeko falta dena borondate politikoa dela. Iritzi berekoa zara?**

Bai. Legeak botere legegileak eta politikoa egiten dituzte. Legea aldatzeko proposamenak izan diren arren, gogoratu behar da UPNk eta PSNk izandako jarrera, eta ezin ahaztu HBrena ere. Hiru alderdion itxikeriak eragotzi du legea aldatzea. Orain uste dut jarrera horietako batzuk alda daitzekela, eta horrek bultzatzen



gaitu legearen aldaketa gerta daitzekela pentsatzera.

■ **Ikastolak toki falta ere badu. Gurasoek diotenez, San Juan Ikastetxe publikoa ez da behar bezala aprobetxatzen. Arazo hori nola moldatu pentsatu duzue?**

Noski. Arazoa bere osotasunean aztertu behar da eta irtenbide bat aurkitu. Udalak ahal duen guztia egin du eta gurasoek ez dute keza handirik izan. Udalak zuen instalakuntza eskaini du.

Badakigu ikastetxe publikoaren eraikina ez dela behar bezala erabiltzen. Biztanleriaren jaitsiera eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren sarreña nabaria izan da ikastetxean. Hori dela eta, ikastolako haurrak ikastetxean inolako arazorik gabe bertakotu daitezke. Hala ere, guri ez dagokigu erantzukizuna. Udaletik saiatu gara bitartekaritza lana egiten, eta gaztelaniazko zein euskarazko hezkuntza komunitateen eta Nafarroako Gobernuaren arteko

soslaia

1987an Irunberriko zinegotzi hautatu zutenean hasi zuen ibilbide politikoa Jose Andres Burgetek. Sei urte daramatza herriko alkatetzan eta beste hiru Nafarroako Udalari eta Kontzejutako Federazioko

(FNMC) presidente lanetan. Egin behar horiei gehitu zitzaion 1997an CDNko lehendakariordetza.

☉ Duela gutxi arte soinketa irakaslea zen Iruñeko ikastetxe batean, baina politikak behartuta lan-utzialdian dago. Nolanahi ere, kirola egiten jarraitzen du. Pilotara oso zalea izateaz gain, asteburutan palaz aritzen da. Dena den, hain gustuko zuen futbola jokatzeari utzi egin dio duela bi urte ligamentu gurutzatuak eta meniskoa apurtu zituelako.

☉ Ez du etorkizunaz hitz egin nahi. Irunberri dituen proiektuak gauzatu, federazioko aspaldiko gaitzak sendatzeko bidean jarri eta CDNren proiektuarekin aurrera jarraitzea besterik ez du nahi. Hainbeste erantzukizunak uzten dioten denbora eskasa familiarekin igarotzen du Irunberri.

gatazkan bitartekari izaten. Udaia hiruron artean dagoen gatazkan parte ez den arren, pairatzailer da. Topagune bat aurkitzeko bikartekari izan da. Topaketa hori legearen aldaketan oinarritzen da. Ikastolak ikastetxe publikoaren instalakuntzak ez

erabiltzeko Hezkuntza Departamentuak izan duen arrazoi garrantzitsuena legea izan da. Irunberri dugun errealitatearekin bat egiteko irtenbidea Euskararen Legea aldatzea litzateke.

■ **Ikastolako arduradunek diote hemezortzi urte aritu direla euren proiektua aurrera ateratzeko lanean eta, legea aldatuko balitz ere, orain artekoa errespetatzea nahi luketela. Zuek ados zaudete?**

Udalak Irunberriko hezkuntza egoera normalizatzea nahi du. Irunberri 1.500 biztanle ditu eta ezin ditu bi hezkuntza eredu eraman. 120-130 ikasle dituen herri batek bi hezkuntza eredu izatea alferrikakoa da. Irtenbidea da haur guztiak zentro berean kokatzea. Egun lehentasuna ez da proiektua errespetatzen den ala ez, alde bakoitzak jakinen du berea nola defendatu. Lehentasuna du egoeraren normalizazioak.

■ **Nafarroako Udal eta Kontzeju Federazioko presidente ere bazara. Nolako da erakundearen egoera?**

Gure egoera etsigarria da. Urte asko dira argudio berekin eskaera berak egiten. Tamalez, ez da arazo horiek konpontzeko gaitasunik izan, ez borondaterik eta ez ausardiarik. Azken zortzi urteetan ez da jakin udal erakundearen egoera ekonomiko-soziala moldatzen. Udalei zenbat diru eman behar dien esaten diogu Gobernuari. Nahi dugu zenbateko hori analisi objektibo batean oinarritua izatea, eta ez bi alderdi politikok erabakitako trasferentzi fondeo araberako erabaki batean. Udal entitateak, herrialdeko Administrazioako partaite diren heinean, ezin dira horrelako erabaki politikoa baten menpe egon. Gure eskumenak behar bezala garatzeko sistema ekonomiko egoki eta egonkor bat eskatzen dugu. Guk egindako eskaeretakoa bat 1998an beteko da, Udal Ogasun Legearen onarpenarekin. Legeak 1999an sistema egonkorra bermatuko du, jakinen dugulako zenbat diru jasoko dugun. Bat bete da, baina nahiago genuen kantitatea nahikoa izatea eta sistema ez hain egonkorra. Arazo gehiago badiren arren, udal administrazioaren modernizazioa litzateke hurrengo premia.

→ Irene Arrizurieta

BEKARIO!

ZALDI ERDA



Nafar Kronika

Fermin Erbiti

Apologiaz

APOLOGIATIK ANTIPOLOGIARAKO saltoetan marka onak ditugu Euskalerrian. Gurea beti ona dela pentsatzeak on baino kalte handiagoa ekarri digu. Euskal kulturaren eta, batzuk egoera penagarriez ballatu dira beren ezgaitasuna ezkutatzeko edo, nahita, txapuzak egiten segitzeko.

Irakurle bezala, apologia edo antiapologia aukeratu behar izatekotan, nik bigarrena aukeratu nuke, berzeta askoz aspergarriagoa izaten delako. Gertatzen dena da (hau kasualidadea!) euskalerritar gehienek eta espainiar-frantziar guztiek euskararen kritikan zorroztzenak bertzerik ez dituztela jasotzen.

Mezuak, etengabe, ikuspuntu bakar batetik eta xede jakin batez helzen ari direnez, ziur nago errealtatea ez dela ez xuri eta ez beltz dakiten intelektual ospetsuak lanean hasiko direla. Egunkari handietan idazteko parada duten kritiko horiek badute, nire iritziz, zer eginik ezkututzen ari dena azaltzeko.

Eta salaketarik ez baizik eta artikululu politagoa egin nahi izanez gero, Oskorrik Iruñeko Gaiarren aurkezturiko montaiaren goraipamena egiteko eskatuko nieke. Mari Jan, katu beltza, Maritxu alegera, xerri kuttin, eta gainerakoen argazkiak eta testu laburra aski izan daitezke batzuetan euskal kultur ekitaldien kalitatea erdarazkoena baino nabarmen handiagoa dela azpimarratu eta euskaraz ez dakiten haurrek jaialdiaz gozatzeko aukera galdu zutela aipatzeko.

Hori bezalakoren bat, noizbait, Madridlgo egunkari batek jasoko balu, eta dudarik ez dut kritikotasun zorrotza duen norbaitek egiten duela, lehenengo orrialdean jartzeko modukoa litzateke. Izan ere, gauza jakina da kazetari ikuspuntuaren arabera gauza harrigarriak azpimarratu behar direla eta orain arte periodiku horien arabera euskarak, administrazioen babes handiegia izateaz gain, haurrak torturatzeko, bahiketarako prestatzeko eta ergel batzuen liburuetarako bertzerik ez du balio izan.

KONTZERTUAK

- **Elizondo:** El Columpio aserino taldeak joko du gaur, 22:30etan, Casino tabernan.
- **Alzoain:** Artsaia aretoan Los berzas taldeak kontzertua eskainiko du gaur, 23:00etan. Sarrerak 1.000 pezeta balio du.
- **Altsasu:** Ataiz txistulari taldeak kontzertua eskainiko du igandean herriko elizan, 19:00etan.

ANTZERKIA

- **Iruñea:** Jus la Rocha aretoan *Entre mujeres* antzez-lana taularatuko du Jus la Rocha antzerki taldeak gaur, 19:30etan.
- **Zizur Nagusia:** Pabellon teatro taldeak *Noches de amor efimero* taularatuko du, gaur, 22:00etan, Kultur Etxean. Sarrerak 400 pezeta balio du.

ZINEMA

- **Iruñea:** Karrikiri elkarteak antolatutako zinemaldiko egitarauan *Tasto* eskainiko da gaur Golem zinematokian 20:00etan. Aurretik *Biktorren erreina* laburmetraila pantalaratuko da. Sarrera, 450 pezeta.

ERASKUSKETAK

- **Corella:** Marisa eta Begoña Cuevaren pintura erakusketa dago zabalik Kultur Etxean otsailaren 6ra arte. Erakusketa lanegunetan bakarrik ikusi daiteke, 18:00etatik 21:00ak arte.
- **Zizur Nagusia:** Javier Ezkironen margoak ikusgai dira otsailaren 15era arte Kultur Etxean. Lanegunetan 19:00etatik 21:00ak arte,

eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00ak arte.

- **Lizarrak:** El Paso, hainbat artisten lanak biltzen dituen pintura erakusketa, zabalik dago heldu den martxoaren 8ra arte Gustavo de Maeztu musean.

BESTELAKOAK

- **Altsasu:** Mikel Gelbenzu entrenatzailea eskubaloi

jaurtiketaz mintzatu da gaur, Zelandi kiroldegian 19:00etan.

- **Ituren:** Bertso bazkaria izanen da bihar. Bertso kantari ariko dira A.M Peña-garikano eta X. Amuriza bertsolariak.
- **Iruñea:** TMB Taldeak *Mont Blanc mazizora* itzulita bideoa eskainiko du gaur 20:00etan, Nafarroako Kirol Elkartearen.

- **Irurtzün:** Euskal Kantu Jaialdia ospatuko da bihar, 19:30etan, Irurtzün Kultur Etxean. Han izanen dira kantari Sakanako Ihetza taldea, Goizuetako taldea, Ur bikotea, Aurki taldea, Lorea Etxarri bikotea, Laiotz taldea, Itziar eta Erkuden bikotea, Lizarrako taldea, eta Alprojak taldea.

Harri Fiction

Urdirzo-Lacostini

NOLA GOBERNA DEZAKET TALOA EGITEKO HIRUREHUN ERA DITUEN HERRI HAU?

Inigo Arista.
IX.
mendean.
Zabaldikako Bentan.
marrukuku.
artopil, sutopil.
arto eta maizurdindu batzuen aitzinean



INIGO ARISTA
colognia per l'uomo naparrin